

KOSTUEN EGITURA

Gure proiektua egiterakoan, gure gastuak minimizatzen saiatu gara. Alde batetik, gure proiektua aplikazio” bat denez, guk, taldeko partaideok, egin dugu aplikazioa”. Gainera, aplikazio” hau sortzerako orduan ez dugu leku handi baten beharra izan, beraz, alde horretatik ere ez dugu gasturik izan. Beraz, aplikazioa” sortzerako momentuan ez dugu gasturik izan.



Aplikazioak” izaten dituen arazoak azkar konpontzea eta aplikazioa” beti eguneratuta izatea oso garrantzitsua da. Gure aplikazioaren” funtzio garrantzitsuenetako bat lagun arteko txapelketa da, beraz eguneratuta egotea funtsezkoa da. Aplikazioak” izango duen kostu finko bakarria aplikazioa” egoki mantentzearena da. Hau da, aplikazioak” arazo bat izango balu, aplikazioaren erabiltzaileak gurekin kontaktatuko luke eta izandako arazo hori konpontzean izandako gastuak, eta aplikazioa” beti eguneratua izateak sortzen dituen gastuak izango ziren gure proiektuaren kostu finkoak.

Horrez gain gure proiektua egoki mantentzeko beharrezkoak dira gailu teknologikoak,. Beraz, ordenagailua edo mugikorra edo beste edozein material apurtzen bada, bere konponketa beharrezkoa da. Hori izango zen proiektuaren kostu aldagarria.